



**2009KO ABENDUAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko abenduaren hamaseian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte eta Xanet Barreras Jauregi.

Amagoia Naldaiz Mingo eta Iñaki Saldaña Herrero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2009ko azaroaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 13 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, LAUROGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (86.630,27 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- LARRIALDIETARAKO DIRULAGUNTZA BATEN INGURUKO ZEHAPEN ESPEDIENTEA.-

Jesus Mitogo Alo Eyang J.ri, 1882/07 pasaporte zenbakia duenari, larrialdietarako dirulaguntza baten inguruan izapidatzen ari zaion zehapen espediente dela eta:

AURREKARIAK

1.- Espediente honi 2009ko uztailaren 19an Tokiko Gobernu Batzar honen akordio bidez eman zitzaion hasiera, eskatutako dirulaguntza zurrizteko aurkeztutako dokumentazioaren artean alokairu kontratua faltasutzeagatik. Akordio horretan bertan prozeduraren instrukzioa izendatu zen eta alegazioak aurkezteko hamabost egunetako epea eman zen. Epe barruan, 2009ko irailaren 15ean, sarrera erregistroko 1650 zbkia.rekin, alegazioa aurkeztu zuen interesatuak. Alegazio horretan hirugarren batek egin dion engainuaren nozitzaila izan dela adierazten du, honek eman ziola izenpetzeko kontratu dokumentua eta hau etxearen jabeak izenpetuta zegoela sinistarazi ziola argudiatzen du.

2.- 2009ko azaroaren 9an instrukzio organuak akordio bat ebatzi zuen. Akordio horretan Jesus Mitogo Alo Eyang J.k egindako alegazioei erantzuten zitzaion eta espedientearen ebazpen proposamena luzatzen zen.

Ebazpen proposamena ondorengo hau zen

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Jesus Mitogo ALO EYANG J.k aurkeztutako alegazio idatziaren aurrean ondorengo kontsiderazioak egiten dira:

1.1 Interesatua, dirulaguntza zuritzeko aurkeztutako kontratuaren izenburupean azaltzen den pertsonaren jabetzakoa den etxebizitzan bizi da.

1.2 Aurrekotik, eta interesatuak bere alegazioan argudiatutakoa egia dela joz honen aldeko interpretazioa eginda, interesatuak dirulaguntzan eman zitzaion dirua etxebizitzaren errenta ordaintzeko erabili zuela ondorioztatu daiteke. Hala ere Diru-laguntzen Lege Orokorra den azaroaren 17ko 28/2003 Legeak, bere 52. artikuluan xedatzen du arauhauste administratibok direla diru-laguntzen gaietan, lege horretan tipifikatutako egite eta egitetik utzitakoak eta baita ere zehapengarriak direla utzikeri soilz egindakoak.

2.- 28/2003 Legearen 54 artikulua ardua salbuespenaren balizkoak arautzen ditu eta esaten du bertan aurrikusitako egite edo egitetik utzitakoak ez dutela ardurarik sortuko dirulaguntzen gaietako administrazio arauhausteagatik. Artikulu honetan araututako balizkoak ondorengoak dira:

a) Egite gaitasunik ez dutenek egindakoak direnean.

b) Ezinbesteko kasua gertatzen denean.

c) Tadeko erabaki baten ondoriozkoak direnean, beren botua ez badute erabaki horren alde eman edo erabakia hartu zeneko bilkuran ez badute parte hartu.

Legeak ezinbesteko kasua gertatzearena zertan datzan argitzen ez badu ere ez dirudi aurrikusten diren balizkoak ari gareneko kasurako aplikagarriak direnik.

3.- Arauhaustea 28/2003 Legearen 58 a) artikuluan tipifikatuta dago eta oso larritzat jotzen da.

4.- 28/2003 Legearen 59 artikulua, bere lehenengo atalean, dirulaguntzen gaietako arauhausteak diruzko zehapen bidez zigortuko direla eta, hala dagokionean, diru bidezkoak ez diren zehapen bidez. Artikulu horrek, bere 2. atalean gehitzen du diru bidezko zehapenak isun finkokoa edo proportzionaltasunezkoa izan daitekela.

5.- 28/2003 Legearen 60. eta ondorengo artikuluek zehapenen graduaketa arautzen dute eta 63 artikuluan oso larriak diren arauhausten zehapenak arautzen dira. 63. artikuluan 1 atalak xedatzen du arauhauste oso larriak jasotako zenbatekoaren proportziozko bikoitzetik hirukoitzera bitarte dihoan zenbateko diruzko isun bidez zehatuak izango direla.

Horren ondorioz, aurrekariak eta zuzenbidezko oinarriak kontuan izanik, ondorengo ebazpen proposamena luzatzen da:

EBAZPEN PROPOSAMENA

Lehenik.- Jesus Mitogo ALO EYANG J.ri, behar ez bezala lortutako zenbatekoaren bikoitzaren pareko SEIEHUN ETA HIRUROGEI EUROKO (660 €) diruzko isuna proposatzea, jasota-



ko dirulaguntza zuritzeko aurkeztutako dokumentazioa faltsutzean arau-hauste oso larri bezala tipifikatuta dagoen arauhausteagatik.

Bigarren.- Ebazpen proposamen honen berri Jesus Mitogo ALO EYANG J.ri ematea, adieraziz prozedura ebatzi aurretik, idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean espedientea entzutealdian gelditzen dela, bere defentsarako nahi duena alegatu dezan.

Entzutealdian interesatuak alegazio idatzia aurkeztu du, 2009ko abenduaren 2an, sarrera erregistro zbkia.: 2160. Alegazio idatzi honetan lehen aurkeztutakoetan esandakoez gain esaten du ez dela bere aldetik gaitzusterik izan ez udala engainatzeko asmorik egon, emandako dirua eman zitzaioneko helburuetarako erabaili duela eta ezin zaiola negligentzetzat akusatu, eta guzti horrengatik zehapen proposamena atzera bota eta espedientea ixtea eskatzen du.

Alegazio hauek aztertu ondoren organo instruktoreak kontsideratzen du beraiek ez direla onartzekoak, eta kasu honetan zabarkeria egon dela esateko moduko zioak daudela eta beraz ebazpen proposamenean berresten dela.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

Lehenik.- Jesus Mitogo ALO EYANG J.ri, behar ez bezala lortutako zenbatekoaren bikoitzaren pareko SEIEHUN ETA HIRUROGEI EUROKO (660 €) diruzko isuna jartzea, jasotako dirulaguntza zuritzeko aurkeztutako dokumentazioa faltsutzean arau-hauste oso larri bezala tipifikatuta dagoen arauhausteagatik.

Bigarrena.- Interesatuari akordio hau jakinaraztea akordio honen aurkako errekurtsoen berri emanez.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-011-006 zbk.dun esped.: zerbitzua ematen hastea arreta pertsonalerako, astelehene-tik ostiralera egunero 3 orduz. Onuradunaren ekarpena %0 izango da.

- 385 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea azaroaren 27 datatik, egoitzan sartu delako.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-010 zbk.dun esped.: alokairuko dirulaguntza etetea, bizilekuz aldatu delako.

- 09-01-014 zbk.dun esped.: alokairuko dirulaguntza etetea, azarotik, lanean hasi delako.

- 755 zbk.dun esped.: eskaera ukatzea, baldintzak ez betetzeagatik.



Telealarma zerbitzua.-

Telealarmaren instalazio kostua laurogei euro eta laurogeita hemezortzi zentimo (80,98 €) instalazio bakoitzeko eta mantenimendu kostua, urteko, laurogeita sei euro eta hogeita zortzi zentimotakoa (86,28 €).

- 09-12-004 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko maiatzaren 26 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %50 da.
- 09-12-005 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko ekainaren 29 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %90 da.
- 09-12-006 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko uztailaren 23 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %50 da.
- 09-12-007 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko uztailaren 24 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %25 da.
- 09-12-008 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko irailaren 15 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %75 da.
- 09-12-009 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko urriaren 14 datan. Bere ekonomi egoera kontutan izanda ez zaio dirulaguntzarik ematen.
- 09-12-010 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko irailaren 25 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %75 da.
- 09-12-011 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko azaroaren 12 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %75 da.
- 09-12-012 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzua jartzea 2009ko azaroaren 16 datan. Ematen zaion dirulaguntza zerbitzu kostuaren %50 da.
- 796 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzutik baja ematea 2009ko irailaren 4 datan, heriotzagatik.
- 727 zbk.dun esped.: telealarma zerbitzutik baja ematea 2009ko urriaren 22 datan, heriotzagatik.

V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Ziburuko "Pierres Larzabal" ikastetxe berria egiteko kostuei aurre egiteko Euskara Batzordetik HIRUREHUN EUROko (300 €) dirulaguntza ematea proposatzen da. Dirulaguntza hau emateko modua, Ordizian 2009ko abenduaren 27an ikastola honen alde egingo den Pirritx eta Porrotx pailasoen ekitaldiko gastuei aurre egitea izango da. Dirulaguntzaren eskaria San Benito Ikastolak egin du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta Gazteria Batzordeak honako dirulaguntza proposamen hau egin du: Igeriketa taldeari LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO (463 €) ematea.

Antzar Korrikalariak, abenduaren 20an Lazkaon egingo den Eskolarteko eta Gipuzkoako federatu mailako kros txapelketarako eginiko dirulaguntza eskaera ikusirik, ZORTZIEHUN EUROko (800 €) dirulaguntza ematea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, proposamenak aztertu ondoren, dirulaguntzak onartzea erabakitzen du.

VII.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIAREN ERAIKUNTZAREN AZAROKO OSASUN ETA SEGURTASUN KOORDINATZAILEAREN FAKTURARI DAGOKION DIRULAGUNTZA ONARTZEA.-

Lazkaoko Aita Beneditarren egoitzan eraikitzen ari den Euskal Dokumentaziorako Agiritegia gordeko duen eraikinaren eraikuntza lanen osasun eta segurtasunaren koordinazioaren 2009ko azaroari dagokion 406 euroko faktura ikusi ondoren, faktura honi udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman diola kontutan izanda eta agriritegi honen eraikuntzarako Aita Beneditarrek eta Lazkaoko Udalaren artean izenpetuta dagoen hitzarmenaren baitan, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkaoko Aita Beneditarrei, fakturaren gutzitiko zenbatekoaren %17,15ko dirulaguntza, hau da, HIRUROGEITA BEDERATZI EURO eta HIRUROGEITA HIRU ZENTIMO (69,63 €) ematea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



